

AGER IZAGIRRE LOROÑO, HERRI
ADMINISTRAZIOAK ETA ERAKUNDE
HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA
IDAZKARI JAUNAK

HAUXE EGIAZTATZEN DU:

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita seiko** uztailaren **hogeita bederatzian** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, besteak beste:

Eguneko aztergaien zerrendako **16. gaia**.

"16.- ERABAKI PROPOSAMENA, FORU ADMINISTRAZIOAK EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUAREN 20.2 c) ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO SINATUKO DEN APARTEKO HITZARMENA OSATZEKO. HITZARMEN HORREN BIDEZ, DIRULAGUNTZA EMATEN ZAIO DEUSTUKO ELIZAREN UNIBERTSITATEARI, LANERATZEN LAN GAIKUNTZAKO DIPLOMAREN PROIEKTUA GARATZEKO.

Lehenengoa.- Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikuluan aurreikusitako dirulaguntza zuzena ematea **DEUSTUKO ELIZAKO UNIBERTSITATEARI** (IFZ: R4868004E), **"Laneratzen Lan Gaikuntzako Diploma"** proiektua finantzatzeko. Dirulaguntzaren zenbatekoa **40.000 eurokoa** da.

Bigarrena.- Finantza-ekarpenaren zenbatekoa **40.000,00 EUROKOA** izango da, eta **2026ko (30.000,00 euro) eta 2027ko (10.000,00 euro)** aurrekontu-partida honetan kontsignatu da: 0904/G/241116/45100, 2024/0049 **"Beste prestakuntza batzuk"** proiektua.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren hitzarmen arautzailea onestea. Hitzarmenaren testua erabaki honekin batera doa (l. eranskina).

AGER IZAGIRRE LOROÑO, DIPUTADO FORAL
DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES
INSTITUCIONALES Y SECRETARIO

CERTIFICA:

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **veintinueve de julio de dos mil veintiséis**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo:

Asunto n.º 16 del Orden del Día.

"16.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DEL CONVENIO A FIRMAR POR EL QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA EXCEPCIONAL PREVISTA EN EL ARTÍCULO 20.2.C) DE LA NORMA FORAL 5/2005, DE 31 DE MAYO, POR LA QUE SE REGULA EL RÉGIMEN JURÍDICO GENERAL DE LAS SUBVENCIONES OTORGADAS POR LA ADMINISTRACIÓN FORAL, A FAVOR DE LA UNIVERSIDAD DE LA IGLESIA DE DEUSTO, PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE DIPLOMA DE CAPACITACIÓN LABORAL: LANERATZEN.

Primero.- Conceder a la **UNIVERSIDAD DE LA IGLESIA DE DEUSTO**, con NIF R4868004E, una subvención directa prevista en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, por importe de **40.000,00 Euros**, para la financiación del proyecto de **"Diploma de Capacitación Laboral: Laneratzen"**.

Segundo.- La aportación financiera por importe de **40.000,00 EUROS** ha sido consignado en la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2024/0049 "Otras formaciones", del presupuesto del año **2026 (30.000,00 Euros)** y **2027 (10.000,00 Euros)**.

Tercero.- Aprobar el Convenio regulador de la subvención. El texto de dicho Convenio se adjunta como Anexo I al presente acuerdo.





Laugarrena.- Ahalmena ematea Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuari hitzarmena sinatzeko, hori garatzeko eta betearazteko behar adina xedapen emateko, itzulketen espedienteak izapidetu eta ebaztea barne, eta dirulaguntzaren baldintzak aldatzeko, gehieneko zenbatekoa izan ezik.

Bosgarrena.- Erabaki horren berri ematea DEUSTUKO ELIZAKO UNIBERTSITATEARI (IFZ: R4868004E), eta, era berean, Ogasun eta Finantza Sailaren Fiskalizazio Zerbitzuari jakinaraztea”.

Eta jasota gera dadin, eta akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da Bilbon, sinatzen den egunean.

Cuarto.- Facultar a la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para la suscripción de dicho Convenio, así como para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para su desarrollo y ejecución, incluida la tramitación y resolución de los expedientes de reintegro, así como para modificar las condiciones de la subvención, salvo en cuanto a su cuantía máxima.

Quinto.- Notificar la presente resolución a la UNIVERSIDAD DE LA IGLESIA DE DEUSTO, con NIF R4868004E y dar traslado de esta al Servicio de Fiscalización del departamento de Hacienda y Finanzas”.

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, se expide la presente en Bilbao, a la fecha de la firma.

ONTZAT EMANA/VISTO BUENO

Idazkaritza Orokorreko Unitateko burua/La jefatura de la Unidad de Secretaría General

NEREA K. LÓPEZ-URIBARRI GOICOLEA

ZIURTATZEN DU/CERTIFICA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta idazkari jauna/El diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y secretario

AGER IZAGIRRE LOROÑO



I. ERANSKINA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA UNIVERSIDAD DE LA IGLESIA DE DEUSTOREN ARTEKO HITZARMENA, "LAN-TREBAKUNTZARAKO DIPLOMA: LANERATZEN" PROIEKTUA FINANTZATZEKO.

Alde batetik TERESA LAESPADA MARTÍNEZ andrea, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko Saileko foru diputatua; Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari moduan jardun du.

Beste alde batetik, ISABEL RUBIO FLORIDO andrea, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Dekano gisa, Universidad de la Iglesia de Deustoren izenean eta ordezkaritza (IFZ: R-4868004E).

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena eta hauxe

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizuna da berdintasunaren, elkartasunaren, gizarte kohesioaren eta enpleguaren aldeko politika publikoak sortu eta bultzatzea Bizkaian, euren egoera pertsonala, gizarte egoera edo familia-egoera dela-eta bizimodu duin eta bete garatzeko zailtasunak dituzten

ANEXO I

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA UNIVERSIDAD DE LA IGLESIA DE DEUSTO PARA LA FINANCIACIÓN DEL PROYECTO DE "DIPLOMA DE CAPACITACIÓN LABORAL: LANERATZEN".

De una parte la Ilma. Sra. Dña. TERESA LAESPADA MARTÍNEZ, Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

De otra parte Dña. ISABEL RUBIO FLORIDO, en calidad de Decana de la Facultad de Educación y Deporte, en nombre y representación de la Universidad de la Iglesia de Deusto, con NIF R-4868004E.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

EXPONEN

PRIMERO

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar,





herritarrei zerbitzuak emanaz; eta arreta gune nagusi izan behar ditu txarren biktima diren emakumeen kolektiboa, gizartetik baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskua duten pertsonen kolektiboa, herritarren lanerako gaitasunen eta enpleguaren sustapena, eta, halaber, giza garapen jasangarriaren sustapena. Horretarako, genero-politikak, aniztasuna kudeatzeko politikak eta lankidetzaren eta garapenaren arlokoak xedatu behar ditu.

BIGARRENA

Hitzarmen honen helburua da Universidad de la Iglesia de Deustori (IFZ: R4868004E) zuzeneko dirulaguntza bat emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, "Lan-trebakuntzarako Diploma: laneratzen" proiektua finantzatzeko.

Erabaki honen izapidetzeari berariazko txostena erantsi zaio. Txosten horren arabera, zuzeneko dirulaguntza hau ez da estatu-laguntza bat, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA

Universidad de la Iglesia de Deustok irisgarritasun unibertsala eta, bereziki, adimen- eta/edo garapen-desgaitasuna (AGU) eta mugako gaitasun intelektuala (BLE) duten gazteen irisgarritasuna bultzatzearen aldeko apustua egin du, "Lan-trebakuntzarako Diploma: laneratzen" bezalako prestakuntza-proposamenak eskainiz. Proposamen hori

tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, en el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

SEGUNDO

El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a la Universidad de la Iglesia de Deusto (NIF: R4868004E) para la financiación del proyecto de "Diploma de Capacitación Laboral: Laneratzen".

Se incorpora a la tramitación del presente acuerdo informe específico que determina que la presente subvención directa no constituye Ayuda de Estado en los términos del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

TERCERO

La Universidad de la Iglesia de Deusto apuesta por favorecer la accesibilidad universal y, especialmente, de jóvenes con discapacidad intelectual y/o del desarrollo (DID), y capacidad intelectual límite (CIL), mediante la oferta de propuestas formativas como la denominada "Diploma de Capacitación Laboral: Laneratzen". Esta propuesta se alinea con los objetivos





bat dator EAEko administrazio publikoek gizarteratzearen, irisgarritasun unibertsalaren eta desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua sustatzearen arloan dituzten helburu estrategikoein.

LAUGARRENA

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren jardura guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira, batez ere enpresa-munduan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, hitzarmenaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko.

BOSGARRENA

Hitzarmen honen izapidetzeari gehitzen zaio generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena eta ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak, Emakumeen eta Gizonen

estratégicos de las administraciones públicas vascas en materia de inclusión, accesibilidad universal y promoción del empleo para personas con discapacidad.

CUARTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes, especialmente en el mundo empresarial.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este convenio deberán tener en cuenta la perspectiva de género. El Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

QUINTO

Se incorpora a la tramitación de este convenio el informe de evaluación previa de impacto en función de género, y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad previsto en la Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de





Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitakoak, zeinaren idazketan azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan ezarritako jarraibideak aplikatu baitira.

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

SEIGARRENA

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duenak, 20.2c) artikuluan xedatzen du zuzenean eman ahal izango direla, salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa oztokatzen duten behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk egiaztatzen dituzten dirulaguntzak.

Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Erregelamenduak, 52. artikuluan, dirulaguntza mota horiek erregulatzen dituzten arauak jasoko dituzten alderdiak ezartzen ditu, eta, era berean, espedientean dirulaguntza kudeatzen

marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres en cuya redacción se han aplicado las directrices establecidas en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre.

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

SEXTO

La Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2c) que podrán concederse de forma directa con carácter excepcional aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 52, establece los extremos que incluirán las normas que regulen este tipo de subvenciones debiendo asimismo incluirse en el expediente un informe del órgano gestor





duen organoaren txosten bat sartu behar da, dirulaguntzaren izaera berezia, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak edo deialdia egiteko zailtasuna justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko.

Horrela, bada, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

de la subvención justificativo de su carácter singular, de las razones que acreditan el interés público, social, económico o humanitario, u otras que justifican la dificultad de su convocatoria.

Así pues, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio el cual se registrá por las siguientes

KLAUSULAK

1. Hitzarmen xedea

Hitzarmen honen xedea da Universidad de la Iglesia de Deustori (IFZ: R4868004E) zuzeneko dirulaguntza bat emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, "Lan-trebakuntzarako Diploma: Laneratzen" proiektua gauzatzeko.

2. Erakunde onuraduna

1. Universidad de la Iglesia de Deusto da laguntzaren erakunde onuraduna (IFZ: R4868004E).

2. Erakunde onuradunak egunean ditu zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzekoak.

3. Erakunde onuraduna ez dago Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeren eraginpean, eta Foru Arau horren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak bete behar ditu.

CLÁUSULAS

1. Objeto del convenio

El presente convenio tiene como objeto establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a la Universidad de la Iglesia de Deusto con NIF R4868004E ejecución del proyecto de "Diploma de Capacitación Laboral: Laneratzen".

2. Entidad beneficiaria

1. La entidad beneficiaria de la ayuda es la Universidad de la Iglesia de Deusto, con NIF R4868004E.

2. La entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

3. La entidad beneficiaria no se encuentra incurso en ninguna de las circunstancias establecidas en el artículo 12 de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.





4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekurik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

5. Entitate onuraduna ez da administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuta izan Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2002 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau--hausteengatik.

6. Hitzarmen hau sinatzeak berekin dakar onuradunaren baimena, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, bai eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak ere.

3. Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia.

4. La entidad beneficiaria de la subvención no está incurso en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

5. La entidad beneficiaria no ha sido sancionada por resolución administrativa firme, por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2002, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

6. La firma del presente convenio conlleva la autorización de la beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y el resto de los datos que puedan ser obtenidos mediante interoperabilidad.

3. Plazo de vigencia

Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo.





Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea 2026ko irailaren 1etik 2028ko uztailaren 30era artekoa izango da, atzeraeraginez.

El plazo de la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija, con carácter retroactivo, desde el 1 de septiembre de 2026 a 30 de julio de 2028.

Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailean dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa Bulego Birtualean aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2028ko uztailaren 30ean amaituko da.

La presentación de la justificación de la aplicación de la subvención en el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad deberá realizarse en la Oficina Virtual concluyendo el plazo para su presentación el 30 de julio de 2028.

Hori guztia hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe.

Todo ello sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica en relación con las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia de este convenio.

4. Aldeek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak

4. Obligaciones y compromisos económicos asumidos por las partes

Zehazki, Laneratzen programa bi ikasturtetan zehar garatuko da, honako fase hauetan egituratuta:

En concreto, el programa Laneratzen se desarrollará a lo largo de dos cursos académicos, estructurados en las siguientes fases:

- 1. fasea. Parte-hartzaileak erakartzea eta hautatzea (Aldia: 2026ko martxoa-maiatza).
- 2. fasea. Hasierako prestakuntza eta gaitasunen garapena (1. ikasturtea - Aldia: 2026ko urria - 2027ko ekaina).
- 3. fasea. Practicum I (Aldia: 2027ko martxoa - ekaina).
- 4. fasea. Prestakuntza aurreratua eta lan-orientazioa (2. kurtsoa- Aldia: 2027ko urria - 2028ko otsaila).
- 5. fasea. Practicum II eta lan-bitartekaritza (Aldia: 2028ko martxoa - ekaina).

- Fase 1. Captación y selección de participantes (Periodo: marzo-mayo 2026).
- Fase 2. Formación inicial y desarrollo competencial (Curso 1- Periodo: octubre 2026 -junio 2027).
- Fase 3. Prácticum I (Periodo: marzo - junio 2027).
- Fase 4. Formación avanzada y orientación laboral (Curso 2- Periodo: octubre 2027 -febrero 2028).
- Fase 5 Prácticum II e intermediación laboral (Periodo: marzo - junio 2028).





- 6. fasea. Programaren azken ebaluazioa (Aldia: 2028ko ekaina-uztaila).

Dirulaguntzaren zenbatekoa berrogei mila eurokoa (40.000,00 €) da, 2026ko aurrekontuko 0904/G/241116/45100 aurrekontu-aplikazioaren kontura (2024/0049 proiektua, "Beste prestakuntza batzuk"), eta 2027koa (10.000,00 euro).

Honelaxe ordainduko da dirulaguntza:

- 30.000,00 euro erakundeak erabaki honetan ezarritako baldintzak sinatzerakoan.
- 10.000,00 euro 2027eko azaroan, hurrengo zortzigarren klausulan aurkeztu beharko den jarduketa-memoria aurkeztutakoan.

Ez da eskatuko erakunde onuradunak bermea ematea, ez baita ikusten bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Dirulaguntza emateko erabiliko den aurrekontu-kreditua 4. kapituluko ("Transferentzia arruntak") eta 241116 programako kreditua da. Hortaz, funtsak ezingo dira erabili kreditu horri egotzi ahal zaizkion gastuez bestelako izaera eta helburua duten gastuetarako.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira dudarik gabe lehenengo klausulan diruz lagundu diren proiektuak behar bezala garatzeko beharrezkoak direnak.

- Fase 6. Evaluación final del programa (Periodo: junio – julio 2028).

La cuantía de la subvención asciende a cuarenta mil euros (40.000,00 €) con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2024/0049 "Otras formaciones", del presupuesto del año 2026 (30.000,00 euros) y 2027 (10.000,00 euros).

El abono de la subvención se realizará de la manera siguiente:

- 30.000,00 euros a la firma, por parte de la entidad, de las condiciones establecidas en la presente resolución.
- 10.000,00 euros en el mes de noviembre de 2027, tras la presentación de la memoria de actuación contemplada en la cláusula ocho.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la entidad beneficiaria por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas.

El crédito presupuestario que ampara la concesión es un crédito del capítulo 4 "Transferencias corrientes" del programa 241116 por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de forma indubitada resulten necesarios para el correcto desarrollo de los proyectos subvencionados en la cláusula primera.





Dirulaguntza honako gastu hauetarako erabili daiteke: justifikazio-aldia amaitu baino lehen gauzatu eta ordaindu diren gastuak, baldin eta indarreko arauekin bat badatoz eta diruz lagundu diren proiektuak garatzeko xedearekin gauzatu badira. Zortzigarren klausula betez proiektu honetan egindako auditoretza-gastuak sartzen dira.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira proiektuari egotz dakizkiokeen barne-langileen zuzeneko gastuak, jardueraren xedeari lotutako kanpo-zerbitzuak, eta diruz lagundutako jardueraren garapenari zuzenean lotutako beste gastu batzuk, behar bezala justifikatuak.

Gastu hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- Prozedura judizialen gastuak.
- Zergak.
- Dirulaguntza jaso behar duen jarduerari zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak eta/edo xedatutako epean egiten ez direnak.
- Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak.
- Inbertsioak.

Se consideran gastos subvencionables, a efectos de esta subvención, los gastos realizados y efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del período de justificación que se ajusten a la normativa vigente, y hayan sido realizados con el fin de desarrollar los proyectos subvencionados, incluidos los gastos de auditoría realizados en este proyecto en cumplimiento de la cláusula ocho.

Se consideran gastos subvencionables los gastos directos de personal interno imputables al proyecto, los servicios externos vinculados al objeto de la actividad, y otros gastos debidamente justificados directamente ligados al desarrollo de la actividad subvencionada.

No tienen la consideración de gastos subvencionables:

- Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- Los intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Los gastos de procedimientos judiciales.
- Los tributos.
- Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido.
- Los gastos de adquisición de licencias informáticas.
- Las inversiones.





5. Erakunde onuradunaren beste betebeharrak

Erakunde onuradunak zintzo bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak.

Agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituen; berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.

Halaber, dirulaguntza honen xedeko jardura dela-eta egin daitekeen datu-aurkezpenean sexuen araberako bereizketa egingo da.

Erakunde onuradunak, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebeharrak horietatik salbuetsita egotea:

5. Otras obligaciones de la entidad beneficiaria

La entidad beneficiaria debe cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de mujeres y Hombres, en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Igualmente, se realizará una desagregación por razón de sexo en la presentación de datos que se pudiera efectuar con motivo de la actividad objeto de esta subvención.

La entidad beneficiaria, de conformidad con el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones, deberá presentar informe justificativo de las siguientes circunstancias:





a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.

b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

c) Plantillan 50 langile edo gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

a) Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

b) Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

c) Las personas físicas o jurídicas con una plantilla igual o superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.





